

## ALDAKUNTZA EBALUAZIO-TXOSTENA / INFORME DE EVALUACIÓN DE MODIFICACIÓN

<b>TITULUAREN IZENDAPENA/ DENOMINACIÓN DEL TÍTULO</b>	<b>PROGRAMA DE DOCTORADO EN BIODIVERSIDAD, FUNCIONAMIENTO Y GESTIÓN DE ECOSISTEMAS</b>
<b>UNIBERTSITATE ESKATZAILEA/ UNIVERSIDAD SOLICITANTE</b>	<b>UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA</b>

UPV/EHU-k, 2021eko apirilaren 13an eta Tituluaren Jarraipen-prozesuan zehar, egiaztapen-memorian aurrez adierazitakoari dagokionez aldaketak ebaluatzeko eskaera bidali dio Unibasq-i, eta aldaketen zerrenda bat aurkeztu du. Eskaera hori 1393/2007 Errege Dekretuaren 28. artikulua eta haren ondorengo aldaketen babesean aurkeztu da. Errege-dekretu horrek dagoeneko egiaztatuta dauden titulu ofizialak lortzeko ikasketen planak aldatzeko prozedura ezartzen du. Halaber, Unibertsitateak "Unibertsitate-tituluen (doktoregoa) aldaketak eskatzeko gidan" ezarritakoari heltzen dio. Gida horretan zehazten da zein prozesuren bidez aurkeztu beharko dituzten unibertsitateek unibertsitate-tituluetan egiten dituzten aldaketak, horien berri emateko eta/edo ebaluatzeko.

Txosten honek aurkeztutako zerrendan adierazten diren alderdien ebaluazioa baino ez du jasotzen. Ez dira ebaluatutzat jotzen Unibertsitateak aldatu dituen eta dokumentu horretan adierazi ez diren memorian jasotako alderdiak.

Erakundeak aldaketa horien berri eman beharko die titulazioko ikasleei, horretarako dituen baliabide guztiak erabiliz.

La UPV/EHU, el 13 de abril del 2021, ha remitido a Unibasq durante el proceso de Seguimiento de Títulos la solicitud de evaluación de modificaciones respecto a lo indicado previamente en la memoria de verificación, presentando un listado de modificaciones. Dicha solicitud se presenta al amparo del artículo 28 del Real Decreto 1393/2007, y sus posteriores modificaciones, por el que se establece el procedimiento para la modificación de los planes de estudios conducentes a la obtención de títulos oficiales ya verificados. Asimismo, la Universidad se acoge a lo establecido en la "Guía para la solicitud de modificaciones de los títulos universitarios (doctorado)", donde se determinan los procesos por los que las universidades deberán presentar las modificaciones que introduzcan en sus títulos universitarios para su comunicación y/o evaluación.

El presente Informe únicamente recoge la evaluación de los aspectos señalados en el listado presentado, no considerándose evaluados aquellos aspectos de la memoria que la Universidad haya modificado y no hayan sido señalados en dicho documento.

La Institución deberá informar adecuadamente de estas modificaciones al alumnado de la titulación por cuantos medios disponga al efecto.

Ebaluazioa Zientzietako Titulazioen Ebaluazio Batzordeak egin du. Batzordeko kideak Agentziaren webgunean jasotzen den prozeduraren arabera hautatu eta izendatu dira. Aldaketen eskaera aztertu ondoren, Ebaluazio Batzordeak **ALDEKO** ebaluazio-txostena egin du, honako hau kontuan hartuta:

La evaluación se ha realizado por el Comité de Evaluación de Titulaciones de Ciencias. Los miembros del Comité han sido seleccionados y nombrados según el procedimiento que se recoge en la página web de la Agencia. Una vez examinada la solicitud de modificaciones el Comité de Evaluación emite un informe de evaluación **FAVORABLE**, considerando que:

#### **Unibertsitateak jakinarazitako aldaketa / Modificación notificada por la Universidad:**


Aldaketa langile akademikoetan.

#### **Batzordearen balorazioa / Valoración Comité:**

UPV/EHUK irakasleen kalitatea kontrolatzeko mekanismoak ditu, doktorego-programari atxikitzen zaizkionak, eta adierazten du prozedura horren bidez bermatzen dela irakasleei egindako aldaketek doktorego-programa egiaztatzeko erabili ziren kalitate-baldintza eta -zantzuak mantentzen edo hobetzen dituztela. Beraz, Batzordeak egokitzat jotzen du Unibertsitateak aurkeztutako aldaketa, Titulu Ofiziala aldatzeko proposamenak ez dakarrela aldaketarik haren izaera eta helburuetan. Tituluak beste aldaketa bat eskatzen duenean eguneratu beharko da memoria. Alderdi horiek betetzen diren ala ez tituluaren egiaztapena berritzean aztertuko da.

**Behin-behineko txosten honetan ezarritakoari alegazioak aurkeztu ahal izango zaizkio 10 egun naturaleko epean. Behin epe hori igarota, Unibertsitateak alegazioak aurkezteari uko egiten diola ulertuko da, eta txosten hori behin betiko txosten bihurtuko da.**

**Lo establecido en este Informe provisional podrá ser objeto de alegaciones que deberán presentarse en un plazo de 10 días naturales. Una vez transcurrido este plazo, se considerará que la Universidad renuncia a presentar alegaciones y este Informe pasará a tener carácter de Informe definitivo.**



Izp. / Fdo.: Iñaki Heras Saizarbitoria  
Unibasq-eko Zuzendaria  
Director de Unibasq